

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA: ESKAINTZA ONURAGARRIENAREN AITORTZA

Espedientea:	Espediente zk.a.: 2026KOPR0007 Kontratazioaren xedea: Askagain - Gorlako kantiaren ustiapen zerbitzua / Askagain – Servicio de explotación de la cantina de Gorla..
Eguna:	2026/08/17
Ordua:	11:00
Bertaratuak:	<u>Presidente</u> : Markel Azkargorta Cid, Bergarako Udaleko Alkatearen ordezkariak <u>Bokalak</u> : Goretti Andrinua Iraolagoitia, Bergarako Udaleko Idazkariaren ordezkariak Nerea Azpillaga Echeverria, Bergarako Udaleko Kontu-hartzailea. <u>Idazkaria</u> : Nere Arenaza Ibarburen, Bergarako udaleko Kontratazio Teknikaria
B gutun-azalean sarturiko eskaintzaren balorazioa onartzea	Udal Teknikari Agronomoak ondorengo txostena aurkeztu du: “Askagain edo Iturriberri parkean dagoen kantinaren erabilera eta ustiaketa berriro adjudikatzeko deialdi publikoaren izapide administratiboa martxan jarri ziren eta prezioa funtsezkoa ez denez, kudeaketa proposamena baloratuko da. Udalaren helburua nagusia da herritarrei zerbitzu txukun bat eskeintzea eta ez, etekin ekonomikorik lortzea. Emakida honen adjudikazioa prozedura irekiaren bidez da. Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan, irizpide hauek hartuko dira kontuan: 1.- Aurkeztutako kudeaketa-proiektua, eta aurkeztu duen lan-taldea, guztira 20 puntura arte. 2.- Lizitatzailerak irabazle suertatuko balitz, zerbitzuan egingo dituen hobekuntzak, Udalarendako inolako kosturik gabe eta Udalak onartzen baditu, 5 puntura arte. Llada Vera Griselda 54265480 NAduena da eskeintza aurkeztu duen bakarra. Instalakuntza Gorlako kantina bezala izendatzen du eta eraikin publikorako kudeaketa proiektua aurkeztu du. Proiektu teknikoa edo proposamena nahiko landua dago eta ikus liteke ingurua ondo ezagutzen duela. Berpiztu kantina, izenburuarekin egiten dituen proposamenean interesgarrienak honakoak dira: Barrukaldea apaintzea, ordutegi eta programazio berri bat lantzea, hitzaldi – kontzertuak e.a Lan taldearen inguruan ez du inongo aipamenik egiten. Irabazlea edo adjudikatzailerak izatea suertatuko balitz, hobekuntzak proposatzeko

	<i>aukera ematen zitzaion eta ez du ezer aipatzen.</i> <i>Beraz. Pleguaren 5. Artikuluan jasotzen diren irizpideen arabera Llada Vera Griseldari Elosuko Askagain edo Iturriberri kantina ustiatzeko 13 puntu ematea proposatzen det.”</i>
Eskaintza onuragarriena aitortzea	Aipatutakoak ikusita, bertaratutako mahaikideek, aho batez erabaki dute Askagain - Gorko kantaren ustiapen zerbitzua emateko eskaintza onuragarriena Griselda Llada Verak (54265480Q) aurkeztu duela aitortzea. Zerbitzua arautzen duten Baldintza Administrazio Zehatzen Agirietako 8.4 atalak zehaztutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu aipatutako lizitatuak.

Hamaikak eta laurden direnean, lehendakariak amaitutzat eman du ekitaldia, eta nik, idazkari lanetan egon naizen honek, hori ziurtatzen dut.

Sinatuta: **PRESIDENTEA**

Sinatuta: **IDAZKARIA**

Esp.: 2026KOZB0007

